

Euskal Departamendua Parisko bileraren azterketa

OTSAILAREN 15ERAKO MATIGNONEN ERANTZUNIK EZEAN ERRESISTENTZIA ZIBILA ABIATUKO DUTELA DIOTE

Ipar Euskal Herriak hitza ukan behar duela aldarrikatu du Ehunen Deiak

■ Barne Ministerioan jarrera herritarren duintasunaren kontrako eraso dela dio Delizagaraik

■ Ipar Euskal Herriak hitza ukaiteko duen eskubidea aldarrikatu du Frantxua Maitia sozialisten idazkariak

■ Matignoni otsailaren 15eko epea finkatu diote Euskal Departamenduaz mintzatzeko ordezkari bat errezibi dezan

Hur Gorostiaga / Baiona

ASTEARTEAN Barne Ministeriotik Euskal Departamenduaren eskaerak ezetza ukan ondoan, mobilizazioen bigarren atalari ekinen diotela adierazi zuten atzo Ehunen Deia-ko ordezkariak. Izan ere, Ipar Euskal Herriko Udalen Biltzarrak Lionel Jospin lehen ministroarekin biltzeko eskaera egin zuen ekaineko biltzar nagusian. Urriaren 9ko manifestaldiaren ondoren ere, Ehunen Deiak eskaera bera egin zuen. Momentuko erantzun bakarra Barne Ministerioak eman du. Udalen Biltzarrak Barne Ministeriora joateko gonbita ukanen balu, Frantxua Maitiak «ez joateko» galdeginen duela zehaztu zuen.

Matignoni otsailaren 15eko epea finkatu diote Euskal Departamenduaz mintzatzeko ordezkari bat errezibi dezan, «bera baita Euskal Departamenduaz erabaki dezakeen bakarra». Hala ez balitz, «erresistentzia zibileko ekimenak» bultzatuko lituzkete udaberriarekin batera.

«Azken hogeitun urteetan Frantziako Estatuak Ipar Euskal Herriari Pirinio Atlantikoen baitan bere baitarik antolatzen hasteko mezua helarazi» diola ohartarazi zuen Frantxua Maitiak. «Hala egin zuen Pierre Joxe ministroak, eta hala gertatu da geroztik ere Iparraldeko Udalen Biltzarra edo Garapen Kontseilua osatzerakoan. Egun, elkarlanean eta lurralde batekiko loturan lan egitera ohitu gara, eta antolamendu mailan tresna bat eskas dugu: Euskal Departamendua. Egin den lan guztiaren ondoren ez digute erraten ahal biarnesen menpe egon behar dugula, eta ez gara menpe egonen», erran zuen sozialisten idazkariak. «Ez gara mututu, ez gaituzte isilaraziko, Ipar Euskal Herriak hitza ukaiteko eskubidea duela al-



PABLO S. QUIZA

Ehunen Deiak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo, Baionan, iragan asteartean Parisen izandako bileraren inguruan.

darrikatuko dugu», zehaztu zuen Maitiak.

«Boz eta inkestek argi eta garbi adierazi dute herritarrek botere politikoa duen tresna bat nahi dutela. Barne Ministerioak, orojakituna ba-

litz bezala, ez zuen une batez ere kontuan hartu euskaldunen nahia zein den. Barne Ministerioaren jarrera herri honetako jendeen duintasunaren kontrako eraso da», azaldu zuen Delizagaraik.

«Demokrazia arazoa da, esku-bide baten ukapena», gehitu zuen. Ildo horretatik, «indar harremana sortu beharrek» dela adierazi zuen Michel Berhokohirigoinek (ELB).

Maitiak eta Jean Lissarrek (Berdeak), bakoitzak Frantzia mailako bere alderdiaren baitan Departamenduaren aldeko jarrera har dezaten lan eginen dutela ohartarazi zuten.

Polizia bat prentsaurrekoan

Prentsaurrekoa ezusteko batekin abiatu zen. Izan ere, kazetarien alboan hala ez zen pertsona bat jarri zen. Frantxua Maitiak zein hedabidetakoa zen galdetu zionean, hark *Renseignements Generaux*-eko kide zela (Poliziako informazio orokorretako zerbitzua sekretua) adierazi zion. Maitiak aretotik ateratzeko galdegin eta hala egin zuen gizonak. Jacques Saint Martinek «lotsagarria eta iraingarria» zela adierazi zuen. «Parisen ez gaituzte entzun, eta orain prentsaurrekora bidaltzen dituzte jakiteko zer nahi dugun», gehitu zuen.

Biltzar nagusia urtarrilean

■ EHUNEN DEIAK biltzar nagusia antolatuko du urtarrilaren erditsutan, bultzatu beharreko ekimenak zein izanen diren zehazteko. Baina jadanik zenbait ardatz aipatu dituzte. Bate-tik, heldu den udaberriari Ipar Euskal Herri osoa zeharkatuko duen martxa eginen dute. Beste-tik, informazio eta presio lana eginen dute Parisen, eta

baita Ipar Euskal Herrian ere. Ildo beretik, Jospinen aginduz osatu eta Pierre Mauroyk zuzentzen duen dezentralizazioa ikertzeko bantzordearekin harremanetan sartzeko xedea dutela aipatu dute, bai eta Paueko Kontseilu Nagusian Euskal Departamenduari buruzko eztabaida galdegiteko ideia ere. Ehunen Deia, berriz, Bi Milen

Deia bilakatuko dela jakinarazi dute.

Azkenik, «mobilizazioetan jauzi kualitatiboa» emanen dutela iragarri zuen Xabi Larralde (AB) Ehunen Deia-ko ordezkarien izenean, «erresistentzia zibila, desobediencia zibila edo bakoitzak nahi bezala dei dezakeena», argudiatu zuen. Jacques Saint Martinek (AND) ekimen horiek «pixka

bat indartsuak» izanen direla zehaztu zuen. Bide beretik, Michel Berhokohirigoinek (ELB) «Parisen zenbat eta itxia-go, Euskal Herrian hainbat eta determinatuago» izanen direla azpimarratu zuen.

Amaitzeko, jakinarazi zuten Jacques Chirac presidentearekin bilkura bat egitea galdeginen dutela.